


Denbora.

2 Aurkitu irudian


Martinek zapatak konpontzen ditu. Dendan zapata mota ugari ditu; baina, tarteka, badira errepikatzen diren zapata pareak ere. **Ea hiru zapata berdin aurkitzen dituzun!**



3 Margotu eta asmatu

Zerbait bereizten al duzu hainbeste lauki eta zenbakiren artean? Zenbaki bakoitza kolore batez margotuz gero, ezkutuan dagoen irudia ikusiko duzu. **Zer dago ezkutuan?**

1-marroia, 2-horia, 3-berde, 4-laranja, 5-urdina.



Pailazo mozorroa

Inauteriak urrun egon arren, prestaketa lanetan hasteko inoiz ez da goiz.

Inauterietan pailazoz mozorrotzea erabaki baduzu, mozorroa nola egin dezakezun azalduko dizugu.




Beharrezko materiala

- Puxika.
- Egunkari papera.
- Paper orea.
- Kola.
- Barrako kola.
- Mastika.
- Hainbat koloretako margoa.
- Pintzelak.
- Paper berdeko txirikordak.
- Gomazko soka elastikoa. Aukeran, beltza izan dadila.
- Guraizeak.
- Eztena.

Egiteko modua

- 1 Lehen lana puxika puztea eta lotzea izango da. Puxikaren erdia egunkari paperekin estaliko dugu. Egunkari paperak puxikan jartzen goazen heinean, kolarekin itsatsiko ditugu.



- 2 Egunkari paperak lehortzen direnean, puxika lehertu egingo dugu. Gero, gure mozorroa izango denari ertzak biribilduko dizkiogu.



- 3 Paper orearekin bolatxo bat egin, eta mozorroaren erdian jarriko dugu. Bolatxo horixe izango da pailazoaren sudurra.


-pasa

4 Buruari eragin

Zenbat zenbaki, parentesi eta parentesi zuzen! Eragiketak pixkanaka egin, eta **ea emaitza egokia lortzen duzun.**


(a) $[(8+7) \times 2] : 3 + 13 - 9 + 5 =$ 


(b) $[(12+7) - 9] \times 6 - [(11+4) - 2] =$ 


(c) $10 - 2 + 13 + 10 - [(9+3) : 2] =$ 

(d) $[(7+1) : 4] \times [(20-3) + 4 - 9] =$ 

(e) $[(9+3) \times 2] : 3 + 4 + 10 =$ 

(f) $[13 + (4 \times 3) - 5] + 1 - 8 + 3 =$ 

(g) $[(2 \times 5) + (8 : 2) + 14 - (6 \times 4)] =$ 

(h) $[(9+2+1) : 3] \times [(8-4) + 7] =$ 



4 Mozorroari begiak marraztu eta kutterarekin mozteko esan behar diozu helduren bati. Ez egin zuek bakarrik, arriskutsua da eta. Bide batez, arnasa hartu ahal izateko, ezten batekin bi zulo txo egin ditzala eskatu. Ez ahaztu mozorroaren ertzetan zulo bana egitea, gomazko soka sartzeko.




5 Mozorro guztia estali ezazu mastikarekin.

Mastika lehortzen denean, margotu mozorroa nahi duzun koloreekin.



6 Pailazoaren ilea egiteko, paper berdeko bi txirikorda erabiliko ditugu. Txirikordak buruaren goiko aldean itsatsiko ditugu, barrako kolarekin.



7 Mozorroaren ertzetan egindako zuloetatik gomazko soka pasatu, eta korapilotxo bana egin. Amaitu dugu gure mozorroa.

Mozorro hau adibide bat baino ez da. Pauso berak eginez, nahi dugun animalia, pertsonaia edo mamutzarraren mozorroa egin dezakegu.

5 Bikiak

Miren bolaluma bat erostera joan da, eta hona hemen dendariak aterata ditzkion guztiak.


Berdinak direla ematen du; ongi begiratu gero, ordea, bi berdinak direla ohartuko zara.

Zein dira bikiak?



6 Itzalak

Isidro detektibeak behar-beharrezkoa du lupa bere lanerako. Itzal hauetatik asmatuko al zenuke zein den Isidroren luparena?



Erantzunak: 1.-1-D, 2.-1, 3.-B, 4.-A, 5.-H, 6.-G, 7.-E, 8.-F, 9.-C. 3.-
Telebista. 4.-a-19, b-47, c-25, d-24, e-22, f-16, g-4, h-44. 5.-1 eta 7. 6.-E.